

Bizkaiko Batzar Nagusiek, 2005.eko martxoaren 10eko osoko bilkuran, Bizkaiko Lurralde Historikoan Jokoaren gaineko Zerga arautzen duen martxoaren 10eko 2005/3. Foru-Araua (BAO Martxoaren 21ekoa)

Bizkaiko Batzar Nagusiek, 2005.eko martxoaren 10eko osoko bilkuran, Bizkaiko Lurralde Historikoan Jokoaren gaineko Zerga arautzen duen martxoaren 10eko 2005/3. Foru-Araua, onetsi dutela eta nik neuk aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dudala jakinarazten dut, aplikatu zaien beharra duten hiritar, norbanako eta agintari guztiek zaindu eta zainaraz dezaten..

MARTXOAREN 10EKO 3/2005 FORU-ARAU, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN JOKOAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.

HITZAURREA

Jokoaren gaineko zergak, Ekonomi Itunaren 36 artikulua araber, autonomiadun arautegiko zerga itunduak dira, baldin eta Euskal Herrian baimendu behar badira. Dena den, aipatu manuak izaera horren ñabardura egiten du, Estatuak ezartzen duen arautegi bera betearaziko dela esanez, zerga-egitateari eta subjektu pasiboari dagokionez.

Ekonomi Itunaren hurrengo artikulua zerga horien ordainarazpenaren eskumena ezartzen du lurraldeari dagokion Foru Aldundi eskudunari eratzekiz, zerga-egitatea Euskal Herrian baimendu behar bada edo egitatea bertan burutzen bada, joko-jardueraren araber.

Honako Foru Arauak, hortaz, foru erakundeek duten arlo horren arautu beharra astezen du; izan ere, erakunde horiek unean uneko gaiak baino ez dituzte landu gaur egun arte.

Jokoaren gaineko Zergaren araupeketak Euskal Autonomia Erkidegoak eratutako arautegi nagusian sortu da, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.35 artikulua, gai horretan soil-soilik, eratzeki dion eskumenaren araber, kirol-ongintzako elkarrekiko apustuak izan ezik.

Eskumen eskusibo hori garatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoak zenbait xedapen arautzaile eman ditu, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legea.

Era berean, beharrezkoa izan da jokoaren gaineko zergen ordainketari buruzko jurisprudentzia aintzat hartzea, batik bat, Auzitegi Konstituzionalaren 1994ko azaroaren 10eko epaia eta Auzitegi Gorenaren 1998 abenduaren 28ko epaia; berorietan, zalantzarik gabe aitortzen da zori-, ausa- eta adur-jokoaren gaineko tasa zerga-izaerakoa dela.

Egoera aztertu ondoren, honako xedapen arauemailearen edukari helduko diogu, 17 artikulutan banatua eta xedapen indargabetzaile bat, xedapen gehiagarri bat eta azken xedapen bi dituela.

Zerga osatzen duten elementuak sartzeko erabilitako metodologian, Foru Arauaren egiturak ez du zehaztapen aipagarririk ematen. Ezarpen-eremua eta ordainarazpenerako eskumena Ekonomi Itunaren ildo jarraikiz ezartzen dira, zeharkako izaera duela eta xedearen zehaztapena aitorturik. Zerga-egitatearen azalpena ematen da, hau da, Euskal Herrian onetsitako araupeketak nagusiaren katalogoak jasotzen dituen jokoak baimendu, antolatu edo egitea; horren ondoren salbuespen aplikarrak aipatzen dira, batez ere, subjektiboak, eta subjektu pasibo eta erantzule solidariotzat jotzen diren pertsonak murrizten dira.

Dauden joko desberdinen arabera ezarritako zerga-oinarri eta zerga-tasa desberdinen araupeketara, honako Foru Arau honen zatirik handiena da; jokoak baimendu, antolatu eta egiteko data, oro har, sortzapenarekin identifikatu ondoren, Subjektu pasiboaren betebeharrak formalak ezartzen ditu amaieran, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritakoarekin bat, subjektu haiek zehapena jaso dezaketelarik.

Azkenik, azken xedapenetan Ogasun eta Finantza Sailari arautegia garatzeko baimena ematen zaio eta Foru Araua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean indarrean egongo dela ezartzen da. Egun horretatik aurrera, indargabeturik geratzen dira Bizkaiko Lurralde Historikoan gai horrekin zerikusia duten zerga-arloko xedapen guztiak.

1 artikulua. Izaera eta xedea.

Jokoaren gaineko zerga zeharkakoa da eta jokoaren jarduerak zergapetu egiten ditu, honako Foru Arauan ezarritako eran.

2 artikulua. Ezarpen eremua eta ordainarazpenerako eskumena.

Bat. Honako Foru Araua joko-jarduerei aplikatuko zaie, berorien baimena EAEn ematen bada eta Bizkaiko Lurralde Historikoan egiten direnean.

Bi. Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio Jokoaren gaineko Zergaren ordainarazpena, honako kasuetan:

- Zozketa, tonbola eta ausazko konbinazioen bitartez egiten diren jokoetan, EAEn baimendu baina jarduerak Bizkaiko Lurralde Historikoan egiten badira.
- Kasino eta bingo jokoetan, makina edo tresna automatiko eta txartelen bitartez eta Euskal Autonomia Erkidegoko Jokoen Katalogoko beste edozein jokotan, zerga-egitatea EAEn egin eta jokoaren jarduerak Bizkaiko Lurralde Historikoan burutzen baldin badira.

Hiru. Jokoaren jarduerak Bizkaiko Lurralde Historikoan egiten direla ulertuko da, honako kasuetan:

1. Oro har, diru zenbatekoak Bizkaiko Lurralde Historikoan jokatzen direnean.
2. Bereziki:
 - a) Kasinoko jokoetan, jarduera burutzen direneko lokala Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatuta baldin badago.
 - b) Bingo jokoetan, jarduerak burutzen direneko lokala edo aretoa Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatuta baldin badago.
 - c) Apustuen bidezko jokoak:
 - Jokoaren jarduera apustueterako lokaletan edo beste mota bateko aretoetan egiten badira eta hauek Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatuta baldin badaude.
 - Apustuen ustiapena egiten duen pertsona fisikoak, juridikoak edo erakundeak zerga egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan baldin dauka.
 - d) Txartelen bidezko jokoetan, txartelak eskuratzen direneko establezimenduak Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatuta baldin daude.
 - e) Makina edo tresna automatikoen bidezko jokoetan, makina edo tresna Bizkaiko Lurralde Historikoan ezarrita baldin badago.

- f) Zozketa eta tonbola bidezko jokoetan, txartelak Bizkaiko Lurralde Historikoan eskaintzen baldin badira, edo hala behar denean, tonbola antolatzen den azoka, feria edo jaia lurralde horretan egiten bada.
- g) Ausazko konbinazioen bidezko jokoetan, promozioaren lurralde eremua Bizkaiko Lurralde Historikoa denean.

Ausazko konbinazioen bidezko jokoetan, promozioaren lurralde eremua Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo ere dagoenean.

- Promozioa egiten duen erakundeak zerga-egoitza EAEn baldin badauka eta Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatuta badago.
- Promozioa egiten duen erakundeak zerga-egoitza EAEn eduki ezean, jokoa Bizkaiko Lurralde Historikoan, erdia edo hirurenak, egiten dela ulertuko da, eremuak EAeko lurralde historiko bi edo hiru hartzen baldin baditu.

3 artikulua. Zerga egitatea.

Jokoaren gaineko Zergaren zerga-egitatea ondoko joko-jarduerak baimendu, antolatu edo egitea da, horretarako bitartekoa eskuzkoa, teknikoa, telematikoa edo interaktiboa izanda:

- Kasinoko jokoak.
- Bingoa, bingo-joko elektronikoa barne.
- Apustuak.
- Txartelak.
- Jokorako makinak.
- Zozketak.
- Tonbolak.
- Ausazko konbinazioak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Jokoen Katalogoko beste edozein joko.

4 artikulua. Salbuespenak.

Jokoaren gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira zozketa, tonbola, apustu eta ausazko konbinazio hauek:

- a) Irabazi asmorik gabe antolatutakoak eta ondoko betekizunak betetzen badira:
 - Interes orokorreko helburuak izatea, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgoarentzako zerga-pizgarriei buruzko otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauan ezarritako eran.
 - Lortutako zenbateko osoa helburu horiek lortzeko erabiltzea.
 - Sarien zenbateko osoa 6.000 eurotik beherakoa izatea.
- b) Errepidean Laguntzeko Bizkaiko Elkartek (DYA) antolatzen dituenak.
- c) Titulartasuna Euskal Autonomia Erkidegoarentzat erreserbatuta badago edo berari eratzeki bazaio.

- d) Azoka, feria edo jaiak direla eta, eguneko antolatzen diren tonbolak.
- e) JAED Junta de Ayuda a Enfermos de Durango elkarteak antolatzen dituenak.

5 artikulua. Subjektu pasiboak.

Bat. Administrazioko baimena eman zaien pertsona fisikoak, juridikoak edo erakundeak dira Jokoaren gaineko Zergaren subjektu pasiboak.

Bi. Administrazioko baimenaren ezean, Jokoaren gaineko Zergaren subjektu pasiboak izango dira jokoaren jarduerak egin edo antolatzen dituzten pertsona fisikoak, juridikoak edo erakundeak.

6 artikulua. Erantzuleak.

Jokoaren gaineko Zergaren erantzule solidarioak dira jokoak egiten direneko lokal, instalazio edo aretoetan, joko-jarduera ez den beste edozein burutzen duten pertsona fisikoak, juridikoak edo erakundeak.

7 artikulua. Zerga-oinarria.

Bat. Oro har, hurrengo atalean joko modalitate bakoitzerako ezarritakoaren kalterik gabe, Jokoaren gaineko Zergaren oinarria osatuko dute jokalariek jokoetan parte hartzeko erabiltzen dituzten diru zenbatekoek.

Bi. Atal honetan aipatzen diren jokoaren ataletan, zerga-oinarria ondokoa izango da:

- a) Kasinoko jokoetan, jokoaren bitartez lortzen diren diru-sarreraren zenbateko osoari jokalariei irabazietan edo sarietan ordaindutako zenbatekoak kenduta ateratzen den emaitza izango da diru-sarrera gordina. joko-aretoetan sartzeko ordaindu beharrekoa ez da aipatu diru-sarrera horietan aintzat hartuko.
- b) Bingo-jokoan, kartoiak erosteko jokalariek ordaintzen duten diru-zenbateko guztia izango da zerga-oinarria, kenketarik gabe. Bingo-joko elektronikoan, jokaturako zenbatekoaren eta sarietarako zenbatekoaren arteko aldea izango da zerga-oinarria, eta jokoak egiten den areto edo lokal bakoitzari aplikatu beharko zaio zerga-oinarri hori.
- c) Apustuaren bidezko jokoetan, zerga-oinarria haxe izango da: apustuetako zenbateko guztien baturari jokalariek jokoan lortutako sariaren zenbatekoa kenduta ateratzen den emaitza.

Dena den, pilota partidaren, estropadetan, kirol lehiaketetan eta herri kirolen txapelketetan egiten diren apustuetan, zerga-oinarria urtean eginiko jardueren kopuruak osatuko du, apustuak jarduera horiek burutzen direneko lekuan soilik egiten badira eta kanpoko apustuak kontuan hartu gabe.

- d) Txartelen bidezko jokoetan, txartelak erosteko jokalariek ordaindutako guztiaren batura izango da zerga-oinarria, inongo kenketarik gabe. Txartelen bidezko jokoak administrazio-baimenik gabe egiten bada, emandako txartelen salneurrien batura osoa izango da zerga-oinarria.
- e) Jokoa, makina edo tresna automatikoen ustiapenaren bitartez egiten bada, "B" edo "C" motako makina edo tresna automatikoen kopuruak osatuko du zerga-oinarria.
- f) Zozketa eta tonbola bidezko jokoetan, eskaintako txartel edo boletoen batura osoa izango da zerga-oinarria.
- g) Ausazko konbinazioen bidezko jokoetan, eskaintzen diren sariak osatuko dute zerga-oinarria. Ondore horietarako, sariaren balioa merkatuan dutena izango da, saria eskura jartzeko behar diren gastu guztien batura barne.

8 artikulua. Zerga-tasa orokorra.

Joko-modalitate bakoitzerako hurrengo artikuluetan ezarritakoaren kalterik gabe, zerga-tasa orokorra 100eko 20koa izango da.

9 artikulua. Kasinoko jokoetan zerga-tasa aplikagarria.

Kasinoko jokoetan honako urteko tarifa hauek aplikatuko dira:

Zerga-oinarriaren zatia, honako hauen artekoa (euroak)	Aplikatu beharreko tasa (%)
0tik 3.000.000,00ra	20
3.000.000,00tik 10.000.000,00ra	33
10.000.000,00eurotik gora	40

Tarifan ezarritako tartek independenteak dira eta zerga-oinarriaren zati bakoitzak, dagokion tartean ezarritako tasaren arabera ordainduko ditu zergak.

10 artikulua. Apustuen bidezko zerga-tasa aplikagarria.

Bat. Apustuen bidezko zerga-tasa, hurrengo atalean ezarritakoaren kalterik gabe, 100eko 10ekoa izango da.

Bi. Atal honetan aipatzen diren kirol jardueretan edo lehiaketetan, ondoko kuota zehatzak aplikatuko dira:

- a) Pilota partida edo estropadak direla eta egindako apustuetan, ekitaldi bakoitzeko 100 euroko kuota finkoa ordainduko dute, urteko ekitaldien kopurua 50 baino gutxiago bada, eta 150 euroko kuota urtean 50 ekitaldi edo gehiago antolatzen direnean.
- b) Beste era bateko kirol jarduerak edo herri kirolen lehiaketak direla eta egindako apustuetan, esaterako, idi probak, gizon probak, aizkolariak, segalariak edo harrijasotzaileak, ekitaldi bakoitzeko 20 euroko kuota finkoa ordainduko dute urteko ekitaldien kopurua 50 baino gutxiago bada, eta 30 euroko kuota urtean 50 ekitaldi edo gehiago antolatzen direnean.

11 artikulua. Txartelen bidezko jokoetan zerga-tasa aplikagarria.

Txartelen bidezko jokoetan zerga-tasa 100eko 15ekoa izango da.

12 artikulua. Kuota aplikagarriak makina edo tresna automatikoen ustiapenaren bidezko jokoetan.

Bat. Ausazko jokoetarako gai diren makina edo tresna automatikoen ustiapenaren bidezko jokoetan, kuota finkoa eskatuko da makina edo tresna bakoitzeko.

Bi. Hona hemen kuota finkoak:

- A) «B» mota makinak edo saria ematen duten jolas-makinak:
 - a) Urteko kuota: 2.750 euro
 - b) Bi jokalarik edo gehiagok aldi berean esku har dezaketean «B» motako makina edo tresna automatikoetan, jokalaria bakoitzaren joko independentea izanik, ondoko kuotak izango dira aplikatzekoak:
 - Bi jokalarirentzako makina edo tresnak: 5.500 euro.

- Hiru edo jokalarik gehiagorentzako makina edo tresnak: 5.500 euro gehi zenbateko horren 100eko 15 jokalarik bakoitzeko, bi jokalaritik gora direnean.

B) «C» motakoak edo ausazko makinak:

- Urteko kuota: 4.025 euro.
- Bi jokalarik edo gehiagok aldi berean esku har dezaketen «C» motako makina edo tresna automatikoetan, jokalarik bakoitzaren joko independentea izanik, ondoko kuota izango dira aplikatzekoak:
 - Bi jokalarirentzako makina edo tresnak: 8.050 euro.
 - Hiru edo jokalarik gehiagorentzako makina edo tresnak: 8.050 euro gehi zenbateko horren 100eko 15 jokalarik bakoitzeko, bi jokalaritik gora direnean.

Hiru. Ustiatzeko baimena lortzen den urtean edo baimena eten, errebokatu edo azkentzen den urtean, kuota hiruhileko naturaletan hainbanatuko da, baimena eman edo etendura kendu denetik hasita baimenari baja eman, baimena eten edo errebokatzen den arte zenbatuta.

13 artikulua. Zerga-tasa aplikagarria zozketa eta tonbolen bidezko jokoetan.

Zozketa eta tonbolen bidezko jokoetan zerga-tasa, oro har, 100eko 15ekoa izango da.

14 artikulua. Zerga-tasa aplikagarria ausazko konbinazioen bidezko jokoetan.

Zerga-tasa aplikagarria ausazko konbinazioen bidezko jokoetan zerga-tasa 100eko 15ekoa izango da.

14 bis artikulua. Bingo-jokoaren gaineko zerga-tasak.

Bingo-jokoaren gaineko karga-tasa 100eko 18,4 izango da. Bingo-joko elektronikoaren gaineko karga-tasa, berriz, 100eko 25 izango da.

15 artikulua. Sortzapena.

Bat. Jokoaren gaineko Zergaren sortzapena gertatuko da, oro har, joko baimentzean eta, hala behar denean, joko antolatu eta egiten denean. .

Bi. Makina edo tresna automatikoen bidezko jokoetan, berorien ustiapena baimendu eta horren ondorengo urteetan, zergaren sortzapena urte bakoitzeko urtarilaren 1ean gertatuko da.

Baimenaren administrazioko baxa urtarilaren 1ean gertatuz gero, zerga ez da berriz sortuko baimena eman arte.

Makina baten orde, antzeko ezaugarriak dituen mota bereko beste makina bat jartzeak, aldi berean, ez du kuota berririk sortuko.

16 artikulua. Betebehar formalak eta zergaren ordainketa.

Bat. Jokoaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek, arauz ezarrita dauden zerga horren aitortpenak edo autolikidazioak aurkeztu behar dituzte derrigorrean; halaber, aitortpena egitean, dagokion zerga-zorra zehaztu eta ordainduko dute, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak kasu bakoitzerako ezartzen dituen tokian, eran eta epeetan.

Bi. Jokoaren gaineko Zergari lotutako jarduerak burutzeko emandako baimenen inguruan gorabeherarik gertatuz gero, hala nola, baxak, etendurak, atzera egitea, aldi baterako itxierak, desgaitzuntzak, konfiskazioak eta antzekoak edo subjektu pasiboaren datuak aldatuz gero, zergaren subjektu pasiboek horren berri eman behar diote zerga administrazioari.

Hiru. Jokoaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek, kasu eta joko mota bakoitzerako arauz ezarrita dauden erregistroko liburuak izan behar dituzte.

Lau. Bitarteko tekniko, telematiko edo interaktiboak erabiliz gero, beharrezko prozedura edo kontrolerako baliabideak izan behar dituzte, zerga-oinarria zehatz-mehatz ezartzeko.

17 artikulua. Zehapenak.

Honako Foru Arauan araututako Jokoaren gaineko Zergaren arau-hausteen eta zehapenen araubidea, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren bitartez eraentzen da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bingo txartelen salmentagatiko tasa

Bat. Bingo txartelen salmenta da honako tasaren zerga-egitatea.

Bi. Tasa sortuko da zerga-egitatea diren kartoiaren salmenta burutzean.

Hala ere, beroriek eman aurretik egingo da sarrera.

Hiru. Bingo txartelak erosten dituzten pertsona fisiko edo juridikoek ordaindu behar dute tasa hori.

Lau. Bingo-txartelen salmentagatiko tasa 0,006784 eurokoa da kartoi bakoitzeko eta zenbateko hori bingo txartelen horniduraren kostu unitarioaren arabera zehazten da, kartoiaren inprimatutako balioa edozein izanda ere.

Foru Arauaren bitartez alda daitezke, soilik, kualifikaziorako elementu eta irizpideen kopurua eta identitatea eta horiexen arabera, eskatutako zenbatekoa zehazten da.

Aurreko ataleko elementu eta irizpideak aplikatuz lortzen diren zenbateko finkoen aldaketa, Foru Dekretuaren bitartez egin daiteke.

Bost. Tasaren kudeaketa eta bilketa Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailari dagokio.

Honako Foru Arauan xedatu gabe geratu den guztia, hain zuzen, zorraren ordainketaren eta epeen araubideari dagokionez, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrekin eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Bilketaren Araubidearekin bat egingo da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Honako Foru Arauaren Azken Xedapenetako Lehenengoak xedatutakoaren kalterik gabe, Foru Arau honetan xedatu denaren aurka dauden xedapen guztiak indargabeturik geratuko dira; halaber, Jokoaren gaineko Zerga Tasaren ondoretarako Araubide Erkideko Lurraldean ezarritako arautegia, Bizkaiko Lurralde Historikoan aplikatzea xedatzen duen otsailaren 9ko 1/1998 Foru Araua eta 2002ko zerga-neurriei buruzko apirilaren 30eko 5/2002 Foru Arauaren 12. artikulua ere indargabeturik geratu dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Foru Arauaren arauzko garapena.

Bizkaiko Foru Aldundia eta Ogasun eta Finantzen foru diputatua baimentzea, honako Foru Araua garatu eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko.

Aurreko atalean aipatutako xedapenak onetsi arte, honako Foru Araua indarrean hasten den egunean indarrean dauden xedapenak izango dira aplikatzekoak.

Bigarren. Indarrean hastea.

Honako Foru Arau hau Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da indarrean.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, 2005eko urtarrilaren 1etik honako Foru Araua indarrean hasi arte gertatzen diren baxa, etendura edo atzera egiteei, Foru Arau honen 12. artikulua 3. ataleko laina aplikatuko zaie.

Bilbon, 2005eko martxoaren 10ean.

Batzar Nagusietako Lehenengo Idazkaria,

NEKANE ALONSO SANTAMARIA.

Batzar Nagusietako Lehendakaria,

ANA MADARIAGA UGARTE.